BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

339

AGINDUA, 2011ko azaroaren 30ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Bilboko CEPA «Irala» HHIren izena eta egoitza aldatzea onartzeko dena.

Aztertuta geratu dira Bilboko «Irala» Helduen Heziketarako Ikastegiko instalazioak beste toki batera eraman direlako egoitza eta ikastegiaren izena bera aldatzeko aurkeztutako proposamenak.

Espedienteari Hezkuntzako Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzak egin dizkio izapideak, eta indarrean dauden arauek eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio.

Gai horretan aplikatu beharreko legeria ikusi ondoren, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Bilboko CEPA «Irala» HHIren egoitza aldatzea onartzea. Ikastegiaren datuak: kode-zenbakia: 48012450; Medina de Pomar kalea, zenbakirik ez. Hemendik aurrera hemen izango du egoitza: Luis Iruarrizaga kalea, zenbakirik ez, Bilbao.

2. artikulua.– Bilboko CEPA «Irala» HHIren izena aldatzea onartzea. Ikastegiaren datuak: kode-zenbakia: 48012450; Medina de Pomar kalea, zenbakirik ez. Hemendik aurrera hau izango du izena: CEPA «Bilbao» HHI.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honen aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko azaroaren 30a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.